

## AINTZIN SOLAS

«Mixel Labeguerie.ren lagunak» deitu elkarteak antolatutik, Kanboko herriaren babespean, omenaldi bero bat eskainia izan zaió Mixel Labeguerie jaunari Uztaritzen eta Kanbon, 2000ko urriaren 14 eta 15etan, haren heriotzearen 20. urtemugakari.

Pentsatu dugu on zela liburu baten agertaraztea egun xoragari horien oroitzagari. Hemen bildu ditugu beraz, larunbatean, Uztaritzen eta Kanbon entzun ditugun mintzaldiak oro bai eta haren olerki guziki, igandeko kantaldian, hain ederki emanak izan zirenak.

Gisa hortan bakoitzak ikusten ahalko du zer gizon izan den Mixel Labeguerie bai politika sailean (auzapez, kontseilari orokor, deputatu eta senatur) bai kultura alorrean eta zer olerkari eta musikari izan den ainitzek kantu berriaren aita bezala daukaten gizon hau.

Nahi ninduzke hemen gure eskerrak bihurtu omenaldi hunkigari hortan xoratu gaituzten hizlari eta kantari guziki, ahantzi gabe bi egun horiek alaitu dituzten Kanboko dantzari eta musikari talderi eta omenaldi horren antolatzen parte hartu duten guziki.

Liburu hau argitaratzen ahal izan dugu Eusko Ikaskuntzaren laguntzarekin. Esperantza dugu hunen bitartez gizon xarmagari hori hobeki ezagutuko duzuela eta plazer izanen duzuela Euskaltzale handi horrek utzi dauzkigun olerki ederren irakurtzen edo xaramelatzen.

Laurent DARRAIDOU

*«Mixel Labeguerie.ren lagunak» elkartearen burua*

## AVANT PROPOS

Au printemps 1999 un groupe d'amis de Michel Labèguerie décidèrent de créer une association ayant pour but de perpétuer sa mémoire. Cette association riche de près de 200 membres pensa qu'à l'occasion du 20<sup>ème</sup> anniversaire de sa disparition (il mourut le 28 juillet 1980) le moment était venu de rendre un hommage officiel, sous le patronage de la ville de Cambo dont il fut maire pendant 15 ans, à cet homme qui a été une figure marquante du Pays Basque.

Michel Labèguerie fut député de 1962 à 1967 puis sénateur de 1974 à sa mort. Sur le plan culturel, la défense de la langue basque fut le combat de sa vie. Il resta pendant 20 ans à la tête de la plus ancienne des associations culturelles basques «Eskualtzaleen Biltzara». Il consacra beaucoup de temps au bertularisme et fut à partir des années 60 un remarquable chanteur-compositeur, considéré, à juste titre, comme le père du renouveau de la chanson basque.

Cet *omenaldi* s'est déroulé les 14 et 15 octobre 2000 à Ustaritz, sa ville natale et à Cambo où il exerça la profession de médecin.

Dans le cadre de cet hommage, le samedi fut consacré à des conférences en basque le matin et en français l'après-midi sur les différents aspects de sa riche personnalité.

Le dimanche après-midi eut lieu un *kantaldi* mémorable au cours duquel une quinzaine de chanteurs figurant parmi les meilleurs du moment interprétèrent ses 24 chansons devant 1.500 personnes enthousiastes.

Nous avons pensé que ces magnifiques journées méritaient d'avoir un prolongement. C'est pourquoi avec le concours d'Eusko Ikaskuntza nous avons réalisé cet ouvrage qui recueille l'intégralité des conférences prononcées à cette occasion, avec traduction en français pour celles écrites en basque.

Il nous a semblé aussi que l'occasion était belle de reproduire dans ce livre tous ses poèmes accompagnés d'une remarquable traduction en français réalisée par Jean Haritschelhar, président de l'Académie basque. Ces chansons figurent en effet parmi les morceaux choisis de la poésie basque.

Qu'il nous soit permis de remercier chaleureusement tous les conférenciers pour la qualité de leurs interventions ainsi que tous les chanteurs qui interprétèrent avec talent ses inoubliables chansons.

Nous espérons que ce livre fera plaisir à tous ceux qui l'ont connu et apprécié et permettra aux autres de découvrir cet homme attachant qui a marqué de son empreinte le Pays Basque tout entier.

Laurent DARRAIDOU  
*Président de «Mixel Labeguerie.ren lagunak»*